

Itsasoa ur-bazter luzea da

Irastortza

Zeruko Argia, 525. zk., 1973-03-25: 7.

Honela deritza Martin Ugaldek *Geron* atera duen nobelari. Ederki adierazten du Carlos Bizkarondo margolariak liburuaren azalean, mendien bizkar ondotik, "Itasoa ur-bazter luzea dela".

Liburuak, nobelaren izena darama, baina *Geroren* 22garren liburua ez du nobela honek bakarrik osatzen. Martin Ugalde beraren beste hiru ipui ere badakazki: "Lohiezko bide zahar", "Ijitoak", "Jesus haurra jaio da".

Dionisio Amundarainek euskeratua eta herrikoitasunean anaia sentitzen duen Iñaki Zabala Sarria-ri eskainia dauka Martinek bere liburu hau.

Ezaguna da gure artean Martin Ugalde. Elkarrizketa argi asko azaldu zuen *Zeruko Argian* Venezuelatik etorri berri hartan. Baina gure artean ez ezik ezaguna da Venezuela eta Hegoamerika osoan, Alemanian, Bretaina Haundian eta Frantzian.

Eguneroko baten zuzendari izana da Venezuelen. Kazetalaritzan ez ezik, ordea, ipuingintzan eta nobelagintzan ere artetsu eta argia da.

Maixu den batek eginak dira, beraz, *Itasoa ur-bazter luzea da* deituriko liburuan datozen nobela eta ipuinak.

Gerraren ekaitzak, Hegoamerikako ibiliak eta Euskal Herriaganako maitasunak hornitutako gizonak burututako liburua dugu oraingo hau.

Behin baino gehiagotan entzuna dugu, lanetik leher eginik etxera heltzean irakurtzeko moduko libururik falta zaigula. Hona bat aukerakoa zenbait ordu-pasa atsegin eta probetxugarririk egin ahal izateko.

Ez dugu uste irakurleari damutuko zaionik liburu hau eskuratzeaz.